

GALA EITB

## Atzo aurrestreinatu zen *Itsatsita berriz* fikzio musikala EITB galan



Leire Martínez eta Jon Plazaola fikzio berri bat partekatzen dute.

IÑAKI LUIS FAJARDO

IRATXE MARTÍNEZ

Atzo gauean Victoria Eugenia antzokia bete zen EITB Gala bizitzeko. Aurten, EITB Donostia Zinemaldiaren Babesle Ofizial bihurtu da eta horregatik hainbeste jarduera eta ekitaldi egin dira euskal zinema babestu eta sustatzeko. 24an Euskal Zinemaren

Gala Handia antolatu zen eta atzo, EITB Gala ospatu zen. Oraingo honetan, ikusleek beste inor baino lehen ikusi zuten *Itsatsita berriz* fikzio musikala.

*Itsatsita berriz*, *Itsatsita* sailaren bigarren denboraldia da. Lehen denboraldian Miren Arrieta eta Gari Uriarte izan ziren protagonistak. Denboraldi honetan, 40 urte inguruko bikote bat lotuta geratuko da auto batean txortan egiten duten bitartean. Larrialdi-zerbitzuko osasun-profesionalek ezin dute sinetsi: Penis captivus kasu bat, berriz

ere! Bikotea *itsatsita* dagoen bitartean, zalantza existentzialak konstatzen dizkiete elkarri, baita haien beldurrak eta ametsak ere. Protagonistek, ordea, banandutako bikotekideekin izandako alabak dituzte eta denboraldi honetako galdera da: Nola erreakzionatuko dute?

Pausokak EITB Mediarentzat ekoiztutako fikzio musikala honetan, Leire Martínez La Oreja de Van Gogh taldeko abeslaria aktore lanean ikusiko dugu lehen aldiz; eta Jon Plazaola, berriz, estreinakoz arituko da musikala batean. Biak dira protagonistak eta biek oso pozik agertu ziren esperientzia honekin. "Filmaketak sei egun iraun arren, esperientzia bizia eta zoragarria izan da. Bukaeran erdi negarrez esan genuen agur", zioen Leire Martínezek. Plazaolak, berriz, kontatu zuen proiektua zergatik izan zen erronka bat: "Niretzako abestea *red flag* bat da", txantxetan egon zen. Ekitaldian ekoizleak eta zuzendariak egon ziren, baita ere.

*Itsatsita berriz*, urriaren 25ean Primeran plataformara iritsiko da, baina dagoeneko ikusgai dago Instagramen (@itsatsita\_eitb), atal berri bat egunero. Eta atzo aurreratu zuten, guztiz ausarta eta hunkigarria da *Itsatsita berriz*. Atzoko galan esan zuten bezala: ikusleak emozionatu dira, barre eginez eta, baliteke, negar eginez.



Victoria Eugenia Antzokia izan zen EITB Gala.

IÑAKI LUIS FAJARDO

## No todos los trenes son como Renfe

Más trenes

El mejor compromiso de puntualidad

Más destinos

Zatoz trenez zinemaldira

En Renfe tenemos más de 1.500 destinos y la mayor frecuencia de trenes del país. Además, con el compromiso Renfe de puntualidad, si tu tren Ave se retrasa más de 15 minutos te devolvemos el 50% del billete, y el 100% si se retrasa más de 30.

Nadie te da más

renfe Tu tren.